



2022/419



1/2022/19



008/2022



50 NAZIOARTEKO GIPUZKOA TROFEOA

Sari hau mundo osoko parte hartzaileei, zaletu zein profesionali irekita dago. Nazioarteko sari honek ondorengo babesa dauka: Fédération Internationale de l'Art Photographique (FIAP), Confederación Española de Fotografía (CEF) eta Federación de Agrupaciones Fotográficas del País Vasco (FAFPV). Hauen arauetan oinarritzen da eta puntugarria da hauen ohorezko tituluarentarako.

MODALITATEA

Fitxategi digitalak.

SAILAK

A - Monokromoan: Gai Librea. FIAP definizioaren arabera

B - Koloretan: Gai Librea.

C - Natura argazkia (koloretan naiz monokromoan). FIAP definizioaren arabera

LANAK

Irudi guztiak parte hartzaileak berak eginak izango dira eta ezingo da irudian kanpoko elementurik sartu. Argazkilari bakoitzak, gehienez, 4 argazki aurkeztu ditzake lan atal bakoitzeko (guztira gehienez 12 argazki). Ez da onartuko lehiaketa honetara aurrez bidalitako lanik eta argazki bera ezin da atal bat baino gehiagotan aurkeztu.

Argazkiak JPGn aurkeztuko dira, bere alde handiena 2300 pixelekoa izanik, eta 300 ppp. Fitxategi bakoitzak gehienez, 2MBko tamaina izan dezake. Kolore eremua sRGB izatea gomendatzen da.

AURKEZPENA

Aurkezpena, internet bidez soilik egingo da. Izen-ematea, irudien bidalketa eta izenemate eskubideen ordainketa **www.trofeogipuzkoa.com** web-an egingo da. Irudiak 2022/10/30ra bitartean aurkeztu daitezke, programa informatikoaren argibideak jarraituz.

IZENEMATEAREN ESKUBIDEAK

Parte hartuko duen sail kopurua kontuan izan gabe.

Egile bakoitzeko:

20 € PDF katalogoarekin.

30 € koloretan inprimatutako katalogoarekin.

10 partaide baino gehiagoko taldeentzat prezioa **25€koa** izango da (koloretan inprimatutako katalogoarekin).

Ordainketa **bakarrik PayPal** bitartez egin daiteke, **www.trofeogipuzkoa.com** orrialdearen bidez eta programa informatikoaren urratsak segituz.

Oharra: Sistemak ordainketak onartu ahal izateko Konkurtso Digitalak parte-hartze plataformaren barneko loturatik sartu behar da Paypal-era. Horrela egingo ez balitz, antolakuntzak ez du erantzunkizunik izango parte-hartzailea onartzen ez bada eta partehartzailea leihaketatik kanpo gera daiteke, partehartzeko kuota bueltatzeko eskubide bakararekin.

KATALOGOA (5*****FIAP)

Kalitate altuko inpresioa duen argazki katalogo bat argitaratuko da. Bertan, saritutako argazki guztiak eta hautatutako lanen bilduma zabal bat jasoko dira, egilearen izena aipatuz.

PDF katalogoa deskargatzeko esteka bidaliko da.

EPEAK

Onarpen epemuga:	2022ko urriak 30a
Epaia:	2022ko azaroak 12 -13a
Jakinarazpenak bidaltzea:	2022ko abendua 5
Sariak emateko zeremonia:	2023ko otsailak
Erakusketa:	2023ko otsailak 3
Katalogoa bidaltzea:	2023ko apirilak

SARIAK

GIPUZKOA TROFEOA eta 1.000€-ko sari berezia berrogeita hamargarren urteurrenagatik (gai bakoitzeko irabazleari) eta katalogoan autorearen biografi labur bat argitaratuko da.

FIAPen Insignia Berezia eta 500€ko (saileko egilerik onenari) lehiaketako hiru atalak kontutan izanik onarpen gehien dituen lehiaketako egilearentzat. Ex aequo edo berdinketa kasuan antolatzaileak erabakiko du eta erabaki honen aurka ezingo da errekurtsorik aurkeztu. Lehiaketako katalogoan egilearen biografia labur bat argitaratuko da.

3 FIAPen Urreztatutako Domina bana (sail bakoitzeko bat)
3 FIAPen Zilarreztatutako Domina bana (sail bakoitzeko bat)
3 FIAPen Brontzeztatutako Domina bana (sail bakoitzeko bat)
FIAPen Ohorezko 18 Aipamen (sail bakoitzeko sei)

3 CEF Urreztatutako Domina (sail bakoitzeko bat)
3 CEF Zilarreztatutako Domina (sail bakoitzeko bat)
3 CEF Brontzeztatutako Domina (sail bakoitzeko bat)
CEF Ohorezko 18 Aipamen (sail bakoitzeko sei)

3 Chairman Diploma (sail bakoitzeko bat)

MARQUES DE ROCAVERDE Euskal Trofeoa (Salbiko lan onenari, Euskal Autonomi Erkidegoan eta Nafarroan bizi direnentzat).

Guztira 60 sari eta 1500 €

EPAIMAHAIA

Epahimahaiko hiru kideak entzuteko argazkilariak izango dira, nazioarteko argazkilaritza ondo ezagutzen dutenak, beti ere FIAP-ek ezartzen dituen baldintzak betez. Jasotzen diren lanak epaimahaikideei aurkeztuko zaizkie eta hauek beraien epaia bildu ondoren emango dute. Epaimahaikideak izango dira:

Isabel Díez - Argazkilaria, AFIAP, ACEF.
Manu Barreiro - Argazkilaria EFIAP/G, MCEF Oro.
Mamen Marí Ayala - Argazkilaria.

GONBIDAPENAK

Gipuzkoa Saria eta egile onenari emango zaion FIAPen insignia bereziaren irabazleak, Euskal Autonomi Erkidegoan edo Nafarroan bizi ez badira, Donostian asteburuko egonaldi batetara gonbidatuak izango dira (2 gauetako egonaldia) ostatua eta gosaria barne dutelarik (bidaia eta garraioa kanpo), Sariak Emateko Zeremonia egiten den asteburuarekin kointzidituz eta bertara joango direnaren konpromezuarekin.

EMAITZEN JAKINARAZPENA

Zein lan hautatu diren eta ze argazkilarik jaso duten saria www.trofeogipuzkoa.com-en argitaratuko da. Egile bakoitzak emailez banakako informazioa jasoko du ezarritako egutegiaren arabera.

ERAKUSKETA

Saritutako lanen selekzioa eta eguile onenaren bilduma 40x50 cm-ko erreproduzituko dira egilearen izena adieraziz. Erakusketa ibiltari baten parte izango dira 2023an zehar.

ARGAZKI ZURI-BELTZA-REN (MONOKROMOA) DEFINIZIOA FIAP-EN ARABERA

Zuri-beltzean eginiko lana, gris argienetik (zuritik) gris oso ilunera (beltzera) grisaren nabardura desberdinak dituen lan monokromoa da. Zuri-beltzean eginiko lana, oso-osorik kolore bakar batean biratuta izan bada, zuri-beltzeko kategorian onartu daiteken lana izango da. Aipatu lana, FIAPek babestutako aretoen katalogoetan, zuri-beltzean argitaratu ahal izango da.

Haatik, zuri-beltzean eginiko lanen bat zatikako biraiatz edo eta bestela erantsitako kolorearen batez landua izan denean, koloretako lana bezala (polikromoa) begiratu izango da, hots, koloretako lanen artean kokatuko dutelarik. Izan ere, FIAPek babestutako Areto baten katalogoetan aipatu obra nahitaez koloretan argitaratu izan beharko du.

NATUR ARGAZKIGINTZAREN - FIAP-EN ARABERA.

Naturaren argazkia, historia naturaleko adar guztiak behatzeko argazki-prozesuak erabiltzera mugatzen da, Antropologia eta Arkeologia izan ezik. Eta horrela egiten du, ondo informatutako persona bat argazkiko objektu bat identifikatzeko eta aurkeztu den formaren benetakotasuna identifikatzeko gai izan dadin. Argazki baten balio narratiboa haren kalitate piktorikoa baino garrantzitsuago hartu behar da, kalitate tekniko handia mantenduz beti. Giza elementurik ez da egongo, non eta giza elementu horiek ez diren Naturaren kontakizunaren integralak, hala nola hontzak eta zikoinak, giza ingurunera egokituak daudelarik, edo aipatu giza elementuak Naturaren indarretan murgilduta daudenean, urakanen eta itsasikaren kasuetan bezala.

Animalia basatien kasuan, xingola edo etiketa zientifikoak eta irrazi-lepokoak dituzten irudiak onartzen dira.

Gizakiek sortutako landare hibridoen, animalia basatien, etxeko animalien edo espeziemen disekatuen irudirik ez dira lehiaketan onartuko, ezta argazki baieztapenaren benekotasuna aldatuko duen edozein manipulazi modurik ere.

Ez da onartuko pintura elementuak gehitu, berrezarri, ordezkatu edo ezabatzeko teknikarik, moztekoak izan ezik. Haatik, argazkiaren aurkezpena hobetzeko teknikak erabiltzeko baimena ematen da, baldin eta naturaren kontakizuna edo eduki piktorikoa aldatzen ez badute, edo jatorrizko eszenaren edukia, HDR, ikuspegiaren pilaketa eta gehiegizko edo gutxiegiak esposizioa aldatzen ez badute.

Kamarak irudian azaltzen diren hautsak, "zarata digital" edo eta pelikulan egindako harramazakak ezabatzeko dituen teknikak erabili ahal izango dira. Ez da, bestalde, manipulaturako argazkirik onartuko. Eginiko zehaztasun guztiak itxura naturala eduki beharko dute. Koloretan eginiko irudiak, monokromoan aurkeztu ahal izango dira, gris-eskalaren bidez. Ez da ordea infragorrian – zuzenean zein zeharka- eginiko argazkirik onartuko.

Naturaren Argazkiari buruzko lehiaketetan aurkeztutako irudian bi motakoak dira: Naturakoak, alde batetik, eta fauna-florakoak, bestetik. Naturari buruzkoak, paisaiak, eraketa geologikoak, gertakizun meteorologikak eta dauden organismoen alorrekoak hartzen dituzte, beti ere osagai nagusiak direnean. Gainera, hesparu kontrolatuetan dauden animalien irudiak onartzen dira, esaterako Zoologikoetan, lorategi botanikoetan, akuarioetan eta elikatzean gizakion esku dauden animalien kasuan.

OHARRAK

Erakusketa honetan parte hartzeak zera esan nahi du, parte-hartzaileak ziurtatzen duela bere lanaren egilea dela eta aldi berean antolakuntza katalogorako bere lanaren kopiak egitera baimentzen duela eta horretarako mugarik ez duela, hala nola edozein zabalkundetarako eta erakusketaren sustapenerako, beti ere noski egilearen izena agertzen delarik. Egileen erantzukizuna da hirugarrengoen eskubiderik ez izatea, hala nola irudi eskubidegatik beste erreklamaziorik. Erakusketak ez du erantzukizunik izango copyright-aren erabilera okerra egiten badu edozein partaidek.

Lehiaketan parte hartzeak araudiarekin ados egotea esan nahi du, antolakuntzak eskubidea izango duelarik oinarri hauetan aurreikusi ez den beste gaitan erabakia hartzeko, RAW artxiboak eskatzeko edota araudi hau betearazteko beharrezkotzat jotzen duen edozein informazio eskatzeko. Adin txikikoek parte hartuko balute indarrean dagoen araudia aplikatuko da alde aurretik antolakuntzarekin emailz harremanetan jarriz trofeogipuzkoa@sfg-ss.com.

Egile batek ez du nazioarteko, nazio mailako edo euskal sari bat baino gehiago irabaziko saileko. Lehiaketak, **Euskal Herriko Argazkilari Taldeen Elkarteak antolatutakoa. (EHATE) ARGIZAIOLA Sarian sailkatzeko balioko du.**

Saritutako argazkiak Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak (GAE-SFG) Fototekaren parte izango dira. Saridunek baimena emango diote lehiaketaren antolakuntzari berauen lanak edozein baliabidetan eta eskubide ordainketarik gabe erreproduzitzeko, baita erakusketetarako argazkiak handiagotu ahal izateko ere. Antolakuntzak beti aipatuko du egilearen izena egin daitezkeen erreprodukzioetan.

Sari eta katalogoaren bidalketa posta arruntez egingo da partaideek inskribatzerakoan adierazitako helbidera. Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak ez du bidalketan gerta daitezkeen galeren, edota tokiko posta baldintzak direla eta entregatuak izan ez direnen ardurik izango.

DATU-BABESA

Lehiaketa honetan parte hartzeak, egileak bere datu pertsonalak - posta elektronikoen helbidea barne- antolatzaileek lehiaketaren helburuetarako gorde, prozesatu eta erabiltzeko baimena ematen duela, ekartzen du. Honez gain, baimena ematen du datuok Lehiaketa honekin egiaztapen, babesa edo elkar-laguntzarako akordio ofiziala duten antolaketekin konpartitzeko. Parte hartzaileak ezagutu eta onartzen du gainera antolatzaileek Lehiaketaren egoera zein emaitzak publikoki aldarrikatzeko baimen osoa dutela.

Ce salon a reçu le Haut Patronage de la FIAP
This salon has received the High Patronage of FIAP

2022/419



Fédération Internationale de l'Art Photographique
International Federation of Photographic Art

Fédérations et associations nationales, associations régionales
et clubs affiliés sur les cinq continents.

National federations and associations, regional associations
and clubs affiliated on all five continents.

Distinctions photographiques mondialement reconnues.
World-famed photographic distinctions.

Les acceptations obtenues à ce salon
comptent pour l'attribution des distinctions FIAP.

Acceptances obtained in this salon
are taken into account for FIAP distinctions.

Secrétariat général - Secretary general

70, Kalokotroni Street - GR-18531 Le Pirée (Grèce - Greece)
www.fiap.net

**CONFEDERACIÓN ESPAÑOLA
DE FOTOGRAFÍA**



1/2022/19

*Este salón es puntuable para la
obtención de las distinciones de
Artista y Maestro que otorga la CEF*

**EUSKAL HERRIKO ARGAZKILARI
TALDEEN ELKARTEA**
**FEDERACIÓN AGRUPACIONES
FOTOGRAFICAS DEL PAÍS VASCO**



008/2022

*Clasificatotoio para el
Trofeo ARGIZAIOLA
ARGIZAIOLA Trofeoa
sailkapenerako balioduna*